

# Liburuak

KRITIKA

## Amari agurra

Helduen literatura | ELEBERRIA

Gema Lasarte

EUSKAL LITERATURAN ezaguna dugu Annie Ernaux (1940) idazle frantziarra. Dagoeneko hiru lan ditu euskaratuak *Pasio Hutsa* (Igela, 2002), *Gertakizuna* (Igela, 2003) eta *Lekuak* (Igela, 2003). Eta oraingoan, berriz, *Une femme* (1988) itzuli digu Itziar de Blas Fernandezek eta Txalapartak argitaratu.

Teknika aldetik, lehen pertsonan borobildua dago eta modus autobiografikoak ematen dituen lizentziak erabiltzen ditu bere aitaren heriotzaren kontaketa-ekin egin zuen berbera amaren heriotzaren narrazioarekin egiteko. Zirkularra, tarte zuriez osatua eta iragana orainera hurbiltzeko teknika zinematografikoez baliatua. Ardatz tematikotzat ama du eta haren heriotza. Ama-alaben arteko hartu-emanen inportantea da bietariko baten heriotza, baina ez da literaturan zehar berau gehiegi aztertu. Amarentzat alabaren

galera edota alabarentzat amaren galera humanitatearen funtsezko tragediak dira, baina literaturan ez dira hala jasoak izan. Ezagutzen dugu Lear (aita-alaba arteko galera),



*Emakume bat.*  
Annie Ernaux.  
Txalaparta, 2011.  
Itzultzailea: Itziar de Blas  
Fdez. de Gamarra.

Hamlet (seme-alaba), Edipo (seme-ama). Humanitatearen tragediarik nagusienak bezala ezagutzen ditugu gainera. Baina orain arte ez dugu ezagutzen, esaten zuen Adrienne Richek (1978) ama-alaba arteko haustura eta pasioa inskribatzen laguntzen duen figura literarioirik.

Eta hori litzateke, liburu honen ekarpenik esanguratsuena, beti ere, Ernauxek oso ohikoa duen fikzioa eta autobiografiaren arteko ezkontza nahastuan sorturiko eremuan aztertuta. Baina, humanitatearen tragediarik handienari izen propioak jartzeaz gain, oso guztion eta gaurkotik duen gaia dakarkigu *Emakume bat* liburuak: alzheimer gaixotasuna. “Badakit ezin naizela bizi garai bateko emakume indartsu eta argitsu hura eta oraingo emakume zoratu hau idazkuntzaren bitartez lotu gabe”. Interesgarria da Ernauxek nola deskribatzen digun eta kontaktzen bere ama izandako gorputz indartsua eta azkenik, gaitzak gaixoturik, gizaki itxura galduz doan gorputz hondatua. Eta harekiko pixkanaka-pixkanaka adioa eta degradazio egoera honek sortzen duen sufrimendu latza. Sufrimendua amarentzako eta sufrimendua alabarentzako ikusirik zein modu bortitzean ari zaion ama galtzen, desagertzen.

Eta azkenik, amaren heriotza, amari agurra. “Ez dut amaren ahotsa berriz adituko. Berak lotzen ditu, bere hitzekin, bere eskuekin, bere keinuekin, bere barre egiteko eta ibiltzeko moduarekin, orain naizen emakume hau eta izan nintzen neskatila. Irten naizen munduarekiko azken lotura galdu dut”. Ederra da kontaketa, ederra ama-alaben artean bizitutakoa, izan ere, Ernauxen amak, beste ama gehienek bezala, goiz eta gau patatak eta esnea saltzen zituen, Annie anfiteatro batean Platoni buruz hitz egiten entzuteko, gaur egun Letra Modernoetan duen Katedra lor zezan edo den idazle ospetsua izan zedin.



Ekain berri



Euskal  
Kulturaren  
sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11